

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Hasiera batean, produktuaren (Balorezko proposamenean) inguruko galdetegia egitea izango litzateke gure hasierako helburua, haren eraginkortasuna eta erosteko nahia neurtzeko asmotan. Hori egin ostean, eta produktua arrakastatsua dela ikusita, produktua patentatuko genukeen. Patentea, Estatuak asmakuntza bat babesteko ematen duen eskubide eskusiboa da. Horri esker, titularrak eskubide eskusiboa ematen dio babestutako asmakuntza komertzialki ustiatzeko, asmakuntza publikoari jakinaraztearen truke.

Bigarrenik, lokala edukitzea ezinbestekoa izango litzateke enpresaren ekintzak aurrera eramateko. Hori dela eta, prezioak murrizteko asmoz, taldekideon garaje bat erabiliko dugu, aipatu bezala, enpresa kudeatzeko. Bertan, produktuen diseinua, marketin-a, publizitatea, bezero potentzialekin kontaktua eta, web-gunearen eta sare sozialen kudeaketan eta, hasiera batean, produkzioaz arduratuko ginateke. Horretaz gain, aipatu bezala, bi 3D inprimagailu erosiko genituzkeen produktuak diseinatzeko eta, era berean, horiek produzitzeko. Gainera, lokalean gauzatuko genituzkeen ekintzetan nabarmendu bezala, web-gunea eta sare sozialak ere ezinbestekoak dira enpresa aurrera eramateko. Bertan, gure produktuekin eta mundu-ikuskerarekin erlazionatutako kontuekin jarriko gara harremanetan gure produktuak eta enpresa iragar dezaten. Azken helburu bezala, gure kontu propioa sortzea eta garatzea izango da enpresaren lehen urteetan zehar.

Etorkizunera begira, produktuak onarpen zabala baldin badu, egitasmoa eskala handira eramateko (produkzioa handitu eta hura eraginkorragoa bilakatu), beste enpresa batekin harremanetan jarriko gara. Adibidez, molde plastikoaren injekziozko enpresa desberdinekin elkarlanean ibiliko gara [Gipuzkoan](#), [Bizkaian](#) edota [Arabian](#). Hari beretik, enpresa handitu ahala, produktuen diseinuaz arduratuko litzatekeen langileen taldea kontratatuko genukeen. Hari beretik, aurretik aipaturiko web-orria garatzeko zein kudeatzeko langileak hartuko genituzke. Amaitzeko, produkzioa handitu ahala, leku gehiagotan saltzea beharrezkoa izango dugunez, puntu haietara gure produktua eramateko banaketa-sistemaz arduratuko litzakeen enpresa bat azpikontratatu genukeen. Zehazki, Gipuzkoako “puntu kritikoetara” (Donostia, Eibar, Arrasate, Tolosa eta Beasain) gure produktua eramatea pentsatu dugu, bertan biltegiak irekita.